



HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA IPARRALDEAN

Jakes Bortairu

Iparraldeko AEK-ko koordinatzailea

Helbide elektronikoa: jakes@aekide.net

Ipar Euskal Herrian helduen euskalduntze-alfabetatzea aipatzerakoan bi datu azpimarratu behar dira. Lehenik, herri ekimenaz ari gara oroz gai-netik. Alabaina, orain arte esperientzia puntual eta isolatu batzuk kendu-ta, elkarteak dira helduei euskarazko kurtsoak proposatzen dizkieten bakarrak. Salbuespen gisa aipa daitezke GRETA formakuntza organismo-ak eta Baionako komertzio Ganbarako hizkuntzen irakaskuntza zentroak (CEL) noizbait emandako ikastaro batzuk edota Departamenduko admi-nistrazioak bere langileentzat antolaturiko barne formakuntzak. Bigarre-nik, AEKaz ari gara nagusiki, Iparraldean ikasturtean emandako ikasle orduen % 95 AEK-k emaiten baititu.

1. HISTORIA LABURRA

HEA mugimenduak 1970eko hamarkadan ditu bere sustraiak. Garai har-tan, Hegoaldean bezala, euskal kultura eta euskararen aldeko interes bizia zabalduz joan zen jendarte osoan. Euskara ikasteko gogo hedatu zen eta han-hemenka euskarazko kurtsoak antolatzen hasi ziren, izan dadin lagunen arteko talde informaletan, herriko kultur taldeetan ala hiz-kuntza irakasteko herriko elkarteetan. Denbora berean *Mende Berri* izene-

ko taldea lehen barnetegiak antolatzen hasi zen, Iparraldeko euskaldun berrien lehengo belaunaldia sortuz. Urte gutxi barne, inizatiba horiek guztiak koordinatzen hasi ziren. Arloaren diagnosia eta beharrak egin ondoren taldeetako irakasleek eta animatzaileek urrats kualitatiboaren beharra ikusi zuten, beren lana emankorrago izateko. Hegoaldean sortu berri zen AEK federazioarekin naturalki harremanetan sartu ziren eta 1980ko azaroan Iparraldean ere egitura xutik ezartzea erabaki zuten. 500 ikasle 24 herritan banaturik eta 50 bat irakasle bildu ziren AEKn. Talde bakar batzuk baizik ez ziren federaziotik kanpo gelditu. Horietarik bakar batek irauten du gaur egun, *Angeluko ikasleak* elkarte hain zuzen.

2. 27 URTEKO IBILBIDEA

Lehengo urteetan federazio berriaren dinamismo handiak jende franko erakarri zuen. Sartze kanpaina ikusgarriek, Korrikako lehengo edizioek eta *AEKantuz* bezalako musika emanaldiek denbora gutxi barne bikoiztu zituzten ikasle kopuruak. Baina kantuak dioten bezala: “ez da hain fazila” eta abandona azkarra etorri zen segidan. Gau-eskolek militanteen garra eskas ez bazuten ere gaineratekoa falta zuten: esperientzia, jende formatua, metodo egokiak, dirua, egitura sendoak. 1985ean elkarrekin 4 liberatu baizik ez zituen. Pixkanaka eta urtez urte federazioak aurrera egin zuen halere, bere egitura hobetuz, bere irakasleak formatuz, didaktikan ere aurrerapausoa eginez. Bestalde, 1980ko hamarkadaren bukaeran euskalgintzako beste herri mugimenduekin batera DEIADAR mobilizazioak antolatzen hasi zen, euskal kultura eta euskararen aldeko neurriak eta dirulaguntzak lortzeko.

Gau-eskoletako lana ezagutu eta laguntzeko prest agertu ziren lehen instituzioak Herriko Etxe batzuk izan ziren, AEKri bere liberatuen sarea hedatzeko parada emanez. Ondoko urteetan *Euskal Herri 2010* deituriko gogoetatik ateratako Lurralde Antolaketa Eskeman hizkuntza kapitulua idatzi zen, helduei euskalduntze alfabetatze alorra sustatzeko helburua barne. Azkenik 2001ean Iparraldea gobernatzen duten Erakunde guztiek (Estatua, Akitania, Departamendua) AEKrekin hitzarmena izenpetu zuten, bere lanaren garrantzia ezagutuz eta zazpi urteko dirulaguntza segurtatuz.

Azken urteetan, agintarien aldetik HEAren garrantzia estrategikoa gero eta onartuagoa dela erran daiteke. Herriko etxe nahiz Departamenduko langileei lan denboran euskara ikasteko parada eskainia izan zitzaizen eta 2006ko hondarrean lehen aldikoz Iparraldean, erakunde publikoek, Euskararen Erakunde Publikoan bildurik, plazaratu duten hizkuntza politika egitasmoan HEA alorrari bere leku osoa aitortzen diote.

Hemendik goiti irekitzen den fase berrian ikustekoa da hitzak ekin-tzak bihurtuko direnez eta, besteak beste, HEA garatzeko plangintza eta diruztatze sistema bat martxan ezarriko dituztenez.

Hegoaldean sortu berri zen AEK federazioarekin naturalki harremanetan sartu ziren eta 1980ko azaroan Iparraldean ere egitura xutik ezartzea erabaki zuten. 500 ikasle 24 herritan banaturik eta 50 bat irakasle bildu ziren AEKn. Talde bakar batzuk baizik ez ziren federaziotik kanpo gelditu. Horietarik bakar batek irauten du gaur egun, Angeluko ikasleak elkarte hain zuzen.

Azken urteetan,
agintarien aldetik HEAren
garrantzia estrategikoa
gero eta onartuagoa dela
erran daiteke. Herriko
etxe nahiz
Departamenduko
langileei lan denboran
euskara ikasteko parada
eskainia izan zitzaizen eta
2006ko hondarrean lehen
aldikoz Iparraldean,
erakunde publikoek,
Euskararen Erakunde
Publikoan bildurik,
plazaratu duten
hizkuntza politika
egitasmoan HEA alorrari
bere leku osoa aitortzen
diote.

3. NORK, NOLA, ETA NON IKASI?

Lehen erran bezala, euskara ikasten duten heldu gehienek AEKrekin ikasten dute. Halere, beste egitura batzuek kurtsoak eskaintzen dituzte, hala nola, *Angeluko Ikasleak* Angelun edo *Maite dugulako* Miarritzen. Aipamen bat egin behar da ere Angeluko ikastolako esperientziari buruz. Guraso talde bat (20 lagun) osatu da euskararen oinarriak ikasteko. Aste-an behin biltzen dira oren bateko kurtso bat segitzeko.

2005/06 ikasturteko ikasle kopuruak hauek dira:

	Herriak	Ikasle kopurua	Klase kopurua	Talde ratioa
AEK	Hendaia	87	12	7
	Azkaine	34	4	9
	D. Lohizune	113	11	10
	Arbona	13	2	7
	Biarritze	104	10	10
	Baiona	211	20	11
	Lehuntze	5	1	5
	Hiriburu	18	2	9
	Hazparne	39	6	7
	Uztaritze	60	6	10
	Kanbo/Itsasu	79	7	11
	Garazi	56	6	9
	Amikuze	66	7	9
	Xiberua	88	10	9
	Orotara	973	104	9
ANGELUKO IKASLEAK	Angelu	101	7	14
MAITE DUGULAKO	Miarritze	20	3	7
Orotara		1094	114	9

Horrez gain AEK-k harreman jarraikiak atxiki eta elkarlan iraunkorra eramaten du Euskal Herritik kanpoko herri batzuetan euskara klaseak ematen dituzten elkarteekin, hala nola, Sustraiak-Erroak Parisen, Lagun eta Maita Pauen, Bordaleko Euskal Etxea eta Toulouseko ikaslee-kin. Orotara urtez urte, 120/150 ikasle biltzen dira zentro horietan.

3.1 Ordukako eskaintza

Goiko taulan agertzen diren ikasleek erritmo desberdinak segitzen dituzte. Ikasturtea 30 astea da, urritik ekainera. Segitzen duten asteroko ordu kopuruaren arabera ikasleen banaketa honela dugu:

	2 oren	3 oren	4 oren	5 oren	6 oren
AEK	10	74	44	541	304
ANGELUKO					
IKASLEAK	101				
MAITE DUGULAKO	20				
Orotara	131	74	44	541	304

3.2 Ikasleen banaketa mailaka (2005/06)

AEK	1.urratsa	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	Alfa	Orot.
Ikasleak	389	197	155	86	45	13	28	51	9	973
%	40%	20%	16%	9%	5%	1%	3%	5%	1%	100%

Angeluko ikasleak	1. maila	2. maila	3.maila	4. maila	5. maila	6.maila	OROTARA
Ikasle	20	24	15	0	28	14	101
%	20%	24%	15%	0%	27%	15%	100%

3.3 Xede taldeak

Xede taldeak talde bereziak dira. Gehienetan lantegi bateko ikasleak dira edota lanbide berdina duten pertsonak. Lehenago ere hainbat esperientzia batzuk izan baziren ere, arlo hori iraunkortu da azken urte hauetan, euskararen presentzia jendarteko zenbait alorretan hedatu arau. Hala nola, 2002tik Euskal Konfederazioak Herriko Etxeei proposaturiko hitzarmenaren ildotik euskararen presentzia bermatzen hasi da herri administrazioan eta ondorioz bertako langileen formakuntza garatzen. Gisa berean duela 2 urte Departamenduko agintariak euskara ikasteko parada (parte batez lan denboran eta dohainik) eman diote beren langileei. Galdeari erantzuteko irakasle bat kontratatu dute eta AEKrekin ere hitzarmen bat izenpetu. Azkenik enpresa pribatuen alorrean ere eskaerak sortzen ari dira. Hona hemen 2006an ematen ziren taldeak:

Nork	Ikasleak	Zonbat	Taldeak
AEK	Herriko langileak	43	9
	Departamenduko langileak	18	3
	Enpresa pribatuak	9	1
Departamenduko administrazioa	Departamenduko langileak	26	5
	Orotara	96	18

Ikastaldiak

AEK-k bakarrik proposatzen ditu eta bi motakoak dira: barnetegiak eta ikastaro trinkoak (aste bat edo bikoak). 2005/06 ikasturtean 175 ikasle partehartu dute ikastaldi horietako batean:

	Non	Ikastaldi mota	Zenbat egun	ikasle kopurua
2005ko uda	Urepele	Barnetegia	15	22
	Uztaritze	ikastaroa	15	24
	Urepele	Barnetegia	15	36
2006ko negua	Uztaritze	barnetegia	5	45
	Uztaritze	barnetegia	5	19
	Miarritze	ikastaroa	5	29

Horrez gain urtero Iparraldeko 15/20 lagunek AEK-k Forun duen barnetegian parte hartzen dute (iraupena: hilabete batetik laura).

4. 05/06 IKASTURTEKO AEK-KO IKASLEEN EZAUGARRIAK

4.1 Sexua:

Gizonak	%46
Emazteak	%54

4.2 Adina : bat az bestea 38 urte

<=25	>25<=35	>35<=45	>45<=55	>55<=65	>65
22%	26%	18%	12%	13%	8%

4.3 Sorlekua

EHTik kanpo	43,3%	
E.Herrian	56,7%	
	3,2%	Hegoaldean
	3,7%	B. Nafarroan
	6,0%	Xiberuan
	43,9%	Lapurdin
	23,1%	BAB (Baiona/Angelu/Miarritze)

4.4 Zonbat urtez Euskal Herrian bizi?

betidanik	54%	
Kanpotik etorriak	46%	
	Urte bat baino guttiago	12%
	5 urte baino guttiago	15%
	10 urte baino guttiago	6%
	10 urte baino gehiago	14%

4.5 Ikasleen motibazioak

Euskaldunekin komunikatzeko	82,5%
Euskal kultura nireganatzeko	57,4%
Hizkuntzak maite ditudalako	44,8%
Nire sustraiak, nortasuna atzemateko	43,3%
Euskal Herrian integratzeko	36,2%
Nire haurra euskara ikasten ari delako	20,2%
Lana atzemateko edo aldatzeko	14,8%

4.6 Ikasleen helburuak izena ematerakoan

Lagunekin sinpleki mintzatu nahi nuke	53,4%
Irrati eta telebista ulertu nahi nituzke	42,6%
Nahi nuke frantsesez bezain ongi euskaraz mintzatu	42,4%
Nozio batzuk ikasi nahi ditut	41,4%
Nahi dut ahal bezainbat euskaraz mintzatu nire harremanetan, nire lanean	33,3%
Nahi nuke nire lana euskaraz burutu	23,2%
eskolan euskara ikasten duten nire haurrak lagundu nahi ditut	13,1%
euskara lehen hizkuntza bezala transmititu nahi diet nire haurrei	12,8%
esaldi sinple batzuk ulertu nahi ditut	12,4%
euskarari esker lan bat atzeman nahi dut	6,1%

5. HEA-REN ERAGINA

Iparraldean euskaldun kopuruari buruz datu zehatzak eskas ditugu. Sekulan ez da errolarekin batera kontaketa orokorrik egin. Ditugun datu fidagarrienak, 1987tik hona egin diren inkesta soziolinguistikoetatik ateratakoak dira. HEA alorrari doakionez berdin gertatzen da. Datu zehatzik ez, baizik eta ebaluaketa batzuk. 1980tik goiti urtez urteko ikasle kopuruak kontuan hartuz, erran daiteke Iparraldean, gutxi gora behera, 12.000/15.000 jende euskarazko kurtsoak segitu dituztela. Bestalde, berriki plazaratu kulturari buruzko inkesta batean Iparraldeko biztanleen % 20 euskara ikasteko prest agertzen da.

Emaitzak direla eta, 2001eko inkesta soziolinguistikoak pista batzuk ematen dizkigu. Hala nola inkestaren momentuan jendearen hizkuntzen ezagupena, bere lehen hizkuntzarekin parekatzen da. Horrela irabaziak eta galtzeak agertzen dira:

	Galdutako euskal hiztunak	Irabazitako euskal hiztunak
Osoki	5 900	3 700
partzialki	12 200	13 800

Irabazitako hiztun horiek eskola eta HEAri zor zaizkie. Adinari so eginez gero, ondoriozta daiteke 2000 inguru euskaldun oso eta 7500 inguru

Hala nola, 2002tik Euskal Konfederazioak Herriko Etxei proposaturiko hitzarmenaren ildotik euskararen presentzia bermatzen hasi da herri administrazioan eta ondorioz bertako langileen formakuntza garatzen. Gisa berean duela 2 urte Departamenduko agintariak euskara ikasteko parada (parte batez lan denboran eta dohainik) eman diote beren langileei. Galdeari erantzuteko irakasle bat kontratatu dute eta AEKrekin ere hitzarmen bat izenpetu.

*Iparraldean euskaldun
kopuruari buruz datu
zehatzak eskas ditugu.*

*Sekulan ez da
errolbarekin batera
kontaketa orokorrik egin.*

*Ditugun datu
fidagarrienak, 1987tik
hona egin diren inkesta
soziolinguistikoetatik
ateratakoak dira. HEA
alorrari doakionez berdin
gertatzen da. Datu
zehatzik ez, baizik eta
ebaluaketa batzuk.*

*1980tik goiti urtez urteko
ikasle kopuruak kontuan
hartuz, erran daiteke
Iparraldean, gutxi gora
behera, 12.000/15.000
jendek euskarazko
kurtsoak segitu dituztela.*

*Bestalde, berriki
plazaratu kulturari
buruzko inkesta batean
Iparraldeko biztanleen %
20 euskara ikasteko prest
agertzen da.*

ru hiztun pasibo zor zaizkiola HEAri. Emaizta mugatuak dudarik gabe, are gehiago denbora berean egoera soziolinguistikoak eragin duen hiztun galtzearekin konparatuz gero: 5900 jende erdaldun bilakatu eta beste 12200 euskaldun pasibo bilakatu.

Ondoko urteei begira erronka ez da txikia. Dirudienez Ipar Euskal Herria gobernatzen duten agintariak ere horretaz ohartu dira. Alabaina, Euskararen Erakunde publikoak 2006ko abenduan aurkeztu duen hizkuntza politika proiektuetan zera irakur daiteke: "...Horregatik, hizkuntza politika proiektuak erabilpen pribatu eta profesionalen sustatzeko, helduei euskara ikasi eta hobetzeko aukera eskaintzeko xedea finkatzen du erronka." Eta erronka horren lan ildoak zerrendatzen ditu honela:

- 1/ Helduei eman, lurralde osoan, euskararen ikasteko eta hobetzeko parada:
- 2/ Irakasleei behar bezala lan egiteko gaitasunak eta tresnak eman:
- 3/ Euskararen menperatze osoa helburu duen irakaskuntza sistema bati buruz joan:

Ondoko hilabeteek eta urteek erakutsiko digute egitarau polit hau zer heinetan eta zer epetan gauzatuko den. Horri begira aurrekontua izan den da elementu erabakigarria. Euskararen Erakunde publikoak hizkuntza politika diruz laguntzeko Jaurilaritzarekin izenpetu duen hitzarmena aurrerapausoa izanik ere, eskasa gelditzen da. Bestelako diru iturriak (moldakuntza jarraikikoak besteak beste) lortu eta mobilizatzeko gai izan ote dira? Bestalde, traba nagusi batekin topo egingen du, oro har hizkuntza politikak duen oztopo bera, hots hizkuntzaren ezagupen falta. Legezko oinarriarik gabe, hiztunen eskubideak ezagutu gabe, eragileen borondate ona da gelditzen den errekurso bakarra. Zaila da pentsatzea nahikoa izan den dela inertzia gainditzeko.

Arazoak arazo, HEA alorra garatzeko baldintzak sekulan baino hobeak dira eta bestelako aitzinamenduak lortu bitartean, % 100ez baliatu beharko dira ahal bezainbat jende euskal hiztun oso bilakatzen laguntzeko.■